



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNUA SAILA
Araubide Juridikoaren
Sailburuordetza
Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Régimen Jurídico
Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo

MUXIKAKO GOROZIKA ATERPETXEKO EUSKAL GIROTZE BARNETEGIARI BURUZ,
EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILAREN ETA MUXIKAKO UDALAREN ARTEKO
HITZARMEN PROIEKTUARI BURUZKO LEGEZKOTASUN TXOSTENA

82/2021 LT - LGAKZ

I. AURREKARIAK

Hezkuntza Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak eskaera bidali dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, 2021eko ekainaren 9ko datarekin, erreferentziatzko Hitzarmen proiektuari buruzko nahitaezko LEGEZKOTASUN TXOSTENA egin dezan, eskaerak hurrengo dokumentazioa eransten duelarik:

- Hitzarmen Testua
- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak jaulkitako memoria
- Departamentuko txosten juridikoa
- Hezkuntza Saileko Kontratazio Zerbitzuaren txostena

Txosten hau oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren 7.1.i) atalean, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 8/2021 Dekretuaren 14.1.a) eta 15.1.a) artikuluetan.

Era berean, posible da seinalatzea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b artikulua ezartzen duenaren arabera Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokiola egin beharreko txosten juridikoa egitea, Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio- edo hitzarmen-proiektuak, erregelamenduz zehaztutako kasuetan.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



Horren erregelamenduzko garapena, izatez, 144/2017 Dekretuaren bidez egin zen, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena, 2017ko maiatzaren 4an indarrean sartu zena, eta honen 13 artikuluan legezkotasun-txostenaren nahitaezkotasuna arautzen du, bai eta txostena eskatzen duen sailak bere txostena eman behar duela eskaerarekin espediente osoa bidali behar baitu.

II. ERABILITAKO ESKUMENA ETA EKIMENAREN LEGEZKOTASUNA

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Muxikako udalaren artean adostutako hitzarmen proposamena den neurrian, Gobernu Kontseiluari dagokio berau harpidetzeko baimena ematea. Horrela dator beren beregi aurreikusita lehen aipatutako Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55. Artikuluan.

Bestalde, honako hau dio 144/2017 Dekretuaren 62.1 artikulua:

1.- Autonomia-erkidegoaren izenean, lehendakaria izango da hitzarmenekiko adostasuna adierazi eta hitzarmenak sinatuko dituena, Eusko Jaurlaritzak ahalmen hori beste agintaritzak bati ematen ez dion bitartean.

Bada, espedientean ez da jaso Gobernu Kontseiluari zuzendutako akordio proposamenik. Ohartarazi behar da, akordio proposamen bat sartu beharko dela espedientean zeina Gobernu Kontseiluari helarazi beharko zaion. Hezkuntza sailburuak hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren izenean sinatu nahi badu, akordio proposamen horretan, beren beregi, jaso beharko da Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuari sinatzeko ahalmena ematen diola .

Proiektatutako testuaren xedea Muxikako Gorozikako aterpetxea erabiltzea da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren "Egonaldiak Euskal Girozte Barnetegietan" programa gauzatzeko, eta hitzarmen gisa aurkezten da.

Gure ordenamendu juridikoan, hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa legeztatzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legean arautu dira, hain zuzen ere, atariko tituluaren VI kapituluan. Lege horren 47. Artikulua definitzen ditu hitzarmenak.



47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 6.1 artikuluan arautzen du gaia. Bertan, hitzarmen bat legearen eremutik kanpo gera dadin eskatzen den lehen gauza da hitzarmenaren edukia lege horretan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian ez sartzea.

Beraz, bai 40/2015 Legeak, bai 9/2017 Legeak eskakizun bera dute: hitzarmenen xedea ezin da izan kontratuen berezko prestazioak ematea.

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak, besteak beste, 2007ko ekainaren 20ko txostenean (IGAEn txostena, 2015eko irailaren 22koa; 2015eko abenduaren 17koa), honako gogoeta hauek egiten ditu:

"Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/18/EE Zuzentarauak, 2004ko martxoaren 31koa, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoak (gaur egun Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaria, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa), honela definitzen ditu ... kontratu publikoak: kostu bidezko kontratuak dira, operadore ekonomiko baten edo batzuen eta

botere esleitzaille baten edo batzuen artean idatziz egindakoak, xedea obrak gauzatzea, produktuak hornitzea edo zerbitzuak ematea, Zuzentaruaren zentzuan, izanik.

Horrela, bada, ... Zuzentaruaren mendeko kontratu publikotzat hartzea zehazten duen kontratuko baldintzetako bat harremanaren kostu bidezko izaerari buruzkoa da. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak botere adjudikatzaille baten eta juridikoki desberdina den pertsona baten arteko harreman juridikoen kostu bidezko izaerari buruzko iritzia eman du (kontuan hartu gabe pertsona hori botere esleitzaillea den ala ez), eta erkidegoko araudiari lotutako kontratu publiko bat dagoela adierazi du (ikus 2001eko uztailaren 12ko epaia, C-399/98 auzian, C-399/98 auzian, eta 220 gaia, 2007ko urtarrilaren 18koa), botere adjudikatzailleak kontraprestazio bat zor duenean kontratistak bete behar duen prestazioaren ondorioz."

Hezkuntza Saileko Kontratazio Zerbitzuaren txostenaren arabera, orain tramitatzen den "hitzarmena" ez litzateke 40/2015 Legearen aplikazio eremuan sartuko. Bat gatoz erabat Sailaren Kontratazio Zerbitzuaren txostenak adierazitako ondorio horrekin, eta, hemendik aurrera, gure txostenak jasotzen ez duen guztiari lotzen gatzaizkio.

Izan ere, proiektaturiko testua aztertuz gero, ondorioztatzen da Eusko Jaurlaritzak Muxikako Gorozika aterpetxea alokatzeko asmoa duela aipatutako programa gauzatzeko, eta, bestalde, Muxikako aterpetxeak honako zerbitzu hauek eskaini behar dizkiola:

- a) Ohea eta izara-jokoa dagozkion estalkiekin.
- b) Ostatu osoa (gosaria, bazkaria, merienda eta afaria).
- c) Erabiltzen diren gela eta lekuen garbitasuna eta berokuntza.
- d) Ikasleen edota irakasleen arropa garbitzea, arrazoi bereziren batengatik ezinbestekoa denean.

Bosgarren klausularen arabera, aterpetxea erabiltzeagatiko eta zerbitzuak emateagatiko kontraprestazio gisa, Eusko Jaurlaritzak honako zenbateko hauek ordaindu beharko ditu pertsonako eta eguneko:

Egoitzaren erabilera	12,5 €
Zerbitzuak	18,2 €

Administrazioaren eta Muxikako Udalaren artean proiektatutako egintzaren bidez, Administrazioak Muxikako Udalak zerbitzu bat ematea lortzen du, interes publikoan eragina duena; Udalak, berriz, Administrazioak prezio bat ordaintzea lortzen du, irabazi asmo legitimo batekin.

Beraz, Zuzentarauaren mendeko kontratu publikotzat hartzea zehazten duen kontratuko baldintzetako bat harremanaren kostu bidezko izaerari buruzkoa izanik, ezin da hitzarmenaren figura antzeman.

Azaldutako guztiagatik, ondoriozta dezakegu xedea ezin hobeto sar daitekeela Sektore Publikoko Kontratuen Legeak araututako kontraturen baten barne.

III. ONDORIOA

Hezkuntza Saileko Kontratazio Zerbitzuaren txostenean adierazitakoarekin bat etorriz, uste dugu proiektatutako hitzarmenaren xedea 9/2017 Legeak ezarritako arauen bidez arautu behar dela.

Hau da ematen dudana txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein iritziren mende jartzen dudalarik, Gasteizen, 2021eko uztailaren 12an.